



## Aisialdi taldeen dantzek hartu dituzte Tolosako kaleak Astelenitan

**GAIK** ▶ Samurai eta ninjak, eusko label produktak, munstroak, mimoak, raperoak eta ohera doazenak irudikatu dituzte Tolosako eta Ibarako sei taldeek ▶ 4-5



Ttentek aisialdi taldeko munstroek izua eragiten astindu zituzten gerriak. I. ASENSIO



J. ASTIBIA



**AMEZKETA** ▶

### Parte-hartze handia izan du aurtengo Talai-dantzak

Herriko neska-mutilak  
aritu dira bi egunez ▶ 7



Talai-dantzariak. N. URBIZU

**SUSANA ORUS** ▶  
INAUTERIZALEA

«Denetarako  
prest egon  
behar da  
Inauterietan»

Tolosar-inauterizale  
'espeziekoa' da ▶ 2

### Txarangekin zezenetara, kalejira koloretsuan

**TOLOSA** ▶ Elkarteetako txarangek Plaza Zaharretik zezen-plazarainoko bidea egiten dute egunero, herritarrak saltoka jarriz ▶ 6



## Urdiña Txiki elkartearen konpartsa 60. hamarkadan

**ATZERA BEGIRA** ▶ Urtetik urtera gero eta karroza eta konpartsa gehiago ateratzen dituzte tolosarrek Zaldunitan, Astelenitan eta Asteartitan. Koadrilako eta taldeko mozorroko ere asko dira. Baina Tolosako Inauteriak beti izan dira parte-

hartzaileak. Horren adibide, XX. mendeko 60. hamarkadako irudi hau ekarri dugu txoko honetara. Urdiña Txiki kirol elkarteak ateratako konpartsa da, domino piezez osatua. Jendearen ikusmina piztu zuten. 'FIESTAS DE PRIMAVERA-1961' PROGRAMA

### SUSANA ORUS ▶ INAUTERIZALEA

## «Ez dut ulertzen tolosar izan eta inauterizale ez izatearena»

**Iñigo Asensio.** Inauteriak gaztetatik bizi izan ditu tolosar honek. Harentzat tolosar-inauterizale hitz parean bananduezina ez bada ere, espezie horretakoa dela onartzen du. Bere bulegoan Inauteri prestaketek sortu duten nahasteak agerian utzi du Susana Orus.

**Zein da oroitzen duzun lehen Inauteria? Nola ezagutu zenituen?**

Txikia nintzenetik ibili naiz Inauteri giroan. Nire etxean oso inauterizaleak gara. Lehen oroimenak gaztetxo izanda Ostegun Gizeneko zezenenak dirala esango nuke. Ondoren, Udaberri dantza taldearekin hasi nintzen; Iruñeko enzierroa itxuratu genuen.

**Nola definituko zenituzke Inauteriak? Zer dira zuretzat?** Inauteriak niretzat Tolosako giroan oso bereziak dira. Inauteriak ez dira, bere horretan, egun hauek bakarrik, baizik eta aurretik egiten diren pres-taketak eta ondoren egiten ditugun hainbat uneen gogora-

tzak. Komentarioak eta abar. Aurretik eta ondoren dagoena.

**Anekdotarik izango zenuen gazte zinenetik igaro dituzun Inauterietan.**

Gure taldean beti esaten dugu urtero lehiaketan parte hartzen dugula, sariren bat jaso nahian, baina behin bakarrik lortu dugula. Barbie ponpoxaz jantzita irten ginen eta saria eman ziguten, baina gurekin Ainhoa Arteta zegoen. Horregatik taldean beti egiten dugu txantxa bera, Ainhoa gabe ez dugula saririk merezi.

**Tolosarrak inauterizalea behar al du izatez?**

Ezetz esango nuke. Dena den, nik ez dut ulertzen tolosar izan eta inauterizale ez izatearena. Bakoitza aske da, noski. Ez dut uste tolosar-inauterizale hitz bikotea bananduezina denik, baina ni behintzat horietakoa naiz.

**Kanpotik datorrenak erraz aurkitzen al du Inauterietan bere lekua?**



I. ASENSIO

### TRAGO BATEAN ▶

**Egunik onena?** Osteguna. Dudarik gabe. Nire anaia Madriletik etortzen da osteguna ospatzeko bakarrik. Gehien gustatzen zaigu. Txupinazoa...

**Gaua ala eguna?** Biak, posible bada. Ezin bakarrek geratu.

**Jantzi bat?** Hori bai zaila... Aukera zabala daukat, eta bakarra hartzea... Txantxo jantzia, Udaberrikoekin atera genuen sanferminetako, Pipi txilaba...

Denetik dago. Nik kanpotik etorri diren lagunei esan diet denetarako prest egon behar dutela. Horrela bada ikaragarri ondo pasatzen du jendeak. Errazagoa da talde batean sartuta bazaude, giroa gertuagotik bizitzen duzulako; baina orokorrean jai hauek edonorentzako dira primerakoak, ongi pasatzeko gogoz etorri behar da.

**Eguraldia?**

Euriak beti zapuzten du pixka bat giroa, baina dena dela ongi pasatuko dugu egiten duena egiten duela. Inauteriak kaleko jaiak dira; nabaritzen da.

### EGITARAUA ▶ GAUR

#### TOLOSA

#### ASTEARTITA

**06:00.** Txistulari Bandak *alborada* joko du udaletxeko arkupeetan, Berdura plazan eta Gorriti plazan.

**08:00.** Pattar Zezena zezen-plazan. Ondoren, kalejira.

**10:30.** Sokamuturra, Plaza Berrian, Urdiña Txiki txarangak alaituta.

**11:30.** Karrozen eta konpartsen irteera.

**15:45.** Herriko txistulari bandak ohiturazko ibilbidea eginen du, *Idiarena* pieza joz.

**16:00.** Kalejira San Esteban, Kabila eta Urdiña Txiki txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazara.

**16:30.** Zezenak zezen-plazan, txarangak eta txistulariek alaituta. Ondoren, kalejira.

**19:00.** Dantzaldia Plaza Berrian, San Esteban, Kabila eta Txapel Haundi txarangekin.

**23:30.** Incansables Zaharrak txarangaren irteera.

**00:00.** Sardinen Hileta konpartsen irteera, Gure Txokoa elkartetik.

### TELEFONOAK ▶

#### Larrialdiak. ((112))

#### Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

#### ▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

#### Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

#### Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320



SOKAMUTURRA ▶



Plaza Berria. Zerkausiko lanak direla eta, aurten sokamuturra lekuz aldatu dute. i. g.



«Ezetz harrapatu». Farolak, eserlekuak... Edozerk balio du. i. g.



Farolan bueltaka. Ederki erabili zuen ninjaz jantzitako gazteak farola lau hankakoarengatik defendatzeko, baina zezenak ez zion uko egin borrokari, eta plazatik atera zuen. i. g.

# Zezenarekin jolasteko aukera gehiago

Plaza Berrian egin da aurten sokamuturra; jostatzeko tarte gehiago ematen dute bertako farolek, eserlekuek...

IMANOL GARCIA

Lekuz aldatu dute aurten sokamuturra. Lehen Solana kalean eta Plaza Zaharran egiten zen, baina Zerkausiko obrak direla eta Plaza Berrian dute zezenzale gazteek beren abilezia erakusteko aukera. Izan ere, abagune gehiago ematen ditu aurtengo zezen-plaza kaletarrak: kioskoa, eserlekuak, farolak, petril altu batzuk...

Gazte eta gaztetxo ugari izan

ziren atzokoan. Horietatik dezentetik kioskora zeuden, bertatik plaza guztia ikusi baitaiteke eta zezenarengatik nahiko salbu egoteko parada ematen baitu, gotorlekua balitz bezala. Beste multzo eder bat plazaren irteeretan jarritako egurrezko hesien atzean zegoen. Eta falta direnak, eta asko hauek ere, plazaren barruan, zezenarekin jolasteko prest.

Hiru zezentxo-bigantxa atera zituzten, tamaina ederrekoak.

Ekitaldi hauetan beti gertatzen den bezala, hasieran jende gutxi hurbiltzen da lau hankakoarena, indarra bere osoan dautkalako. Animalia pixkat nekazten denean, ausartenak edo abilezia gehiena daukatenak ez ezik, besteak ere animatzen dira. Sokamuturraren kokaleku berrian, gainera, hiri-altzarien laguntza daukate. Hala ere, zezen batek eserleku gaitetik ere salto egin zuen. Ez guztiz fidatu, hortaz.



Paseak. Zezenaren aurrean erakustaldiak egin zituzten batzuk. i. g.

**CITROËN, GELDIEZINA**

Munduko Rally txapelkuna 2003, 2004, 2005.  
Dani Sordo, Junior mailako munduko Rally txapelkuna Citroën C2 Super 1,600ekin.  
Salmento errekorra: 218.000 ibilgailutik gora salduak.  
Lehenak ibilgailu komertzialen salmentan.

**Horregatik, hilabete honetan, eskaintza geldiezinak:**

	<b>CITROËN C1</b> 8.080 €-tik		<b>CITROËN C2</b> 8.520 €-tik *loko aurrezkoa		<b>CITROËN C3</b> 9.030 €-tik *loko aurrezkoa
	<b>CITROËN C4</b> 11.830 €-tik *loko aurrezkoa		<b>CITROËN PICASSO</b> 13.000 €-tik 3.750 €-tik *loko aurrezkoa		<b>CITROËN C5</b> 17.320 €-tik 4.000 €-tik *loko aurrezkoa

**NORGEHIAGOKAKO TEKNOLOGIA EGUNEROKORAKO**  
Aurkitu operazio bereziak [www.citroen.es](http://www.citroen.es) web orrialdean **Citroën argibideak: 902 44 55 66**

Konsumo mistoa (l/100km, l CO<sub>2</sub> (gr/Km)) emisioa: C1: 4,1 - 4,6/109 C2: 4,2 - 6,9/111-163 C3: 4,3 - 7,0/113-165 C4: 4,7 - 8,4/125-200 Xsara Picasso: 5,1 - 8,6/135-205 C5: 5,4 - 10,0/142-238 \*PVP gomendatua (B E Z, matxulazio zerga, garrantzia, promozio eskaintza eta plan preber barne). \*\*PVP (in dagoenik aurrezkoa, biek gomendatutak, (B E Z eta matxulazio zerga barne). Hiruak ezin dira batera erabiltzeko. Hilebete buketara gite baliozkoak, stockeko buruzburuzkoak, penintsulako eta Salbur diletan batera partikularretzat, operazioan parte hartzen diren salmentan partikularretzat. Argazkiak erabiltzen diren modukoak. C1 Sp, C2, C2 VTS, C3 VTR, C4 Coupé VTS, Xsara Picasso Exclusive, C5 Premier. (1) Matxulazio datuak DCI 2005.



AIASIALDI TALDEAK ▶



Atsedena. Samurai eta Ninja talde honek ez zuen hutsik egin Inauterietan. I. TERRALLOS

# Astelenita dantza giroan

Samurai eta ninjak, eusko label produktuak, munstroak, mimoak, raperoak eta ohera doazenak irudikatu zituzten atzo Ibarra eta Tolosako sei aisialdi taldeek



Tientek. Munstroek ikusleak izutu zituzten; emanaldi bakaina eskaini zuten. I. SESASO

**N.L./A./L.T.**

Urtero legez, eta hotzari aurre eginez, 11:30ean abiatu ziren zuzen-plazatik Ibarra eta Tolosako 6 aisialdi taldeko kideak dantzarako prest, hambeste dantzeran prestatu eta gero jendaurrean aurkezteko. San Franzisko ibilbidea zeharkatu zuten eguerdi partearaino beran bildu zirenean ikusleak pa-regabea eskaintz.

Tolosako babarruna, Ibarra-ko piperra, Ibizabalgog gazta eta euskal tomatea, guztiak elkarrekin dantzan ikusteko aukera izan zen atzoan. Txiribitu taldeko 40 pertsonak ziren eusko labela dantzarako gai bezala hartu zutenak. Gure jakien dantzailearen ostean, rap talde handi baten kontzertu erraldoia izan zen ikusgai. San Bernardo taldeak antolatuta, eszenarioan abeslariak eta kalean bere dantzariak jarri ziren dantzan rap diomuekin.

Atsedena taldeko 110 kideen txanda izan zen ondoren. Geisha eta Ninja moztroak soinean egin zuten dantza saioa. Bidurrak ere izan zuten tartea, izan ere, Tientek taldeko guztxeok gai horrekin loturiko pertsoniak soinean zizutzea asiatu zituzten gerririk.

Izuaren ostean ohera joateko ordua iritsi zela iragarri zuten Kazkabarra taldeak. Lehenengo txikiak joan ziren dantzan ohera, eta beranduegoko hauen atzetik heldiak, guztiak ere pijamak jantzita eta pampinak aldean zizutela.

Lo hartu bezain laster hasi ziren hausek ametsetan. Kaxatik atera zen mutikoak arroxka bat oparitu zion neskarari, eta une hunkigarri horren ostean, hainbat eta hainbat gaste, Kirikiño taldeko 280 kide hain zuzen ere, mimoaena egin ez hazi ziren dantzan.

Dantza saioak goizean ikusteko aukera izan ez zuzenak arratsaldean ere izan zuten horretarako bera. Izan ere, aisialdi talde guztiak zuzenetan izan eta gero jarraitu zuten dantzan guztiok saioak korrikora nekari aurreratu egin.



San Bernardo. Doinu dantzagarriak izan ziren nagusi talde honetako partaideek, raperoz mozturorik, eskaintako dantza saioan. N. LARRUGO



Kazkabarra. Ohetik jaiki berrikan hasi ziren Kazkabarrako gasteak dantzan, eta ez nola-nahi, gainera; euskal doinuek harira, saio bakaina egin zuten. I. ARRIENO



Txiribitu. Eusko labela aitzaki hartuta Tolosako babarruna, Ibarra-ko piperra, Ibizabalgog gazta eta euskal tomatea, guztiak batera, aritu ziren atzokoan. I. TERRALLOS



Kirikiño. Mimoak ere ederki igarri zuten dantzan, sorpresa eta gurri. Izan ere, ikuslearen hasieran kaxa batetik mimo bat atera zen. I. ARRIENO

**in** enplegatzaile eta enplegatzaileen arteko erlazioak hobetzeko eta enplegatzaileen arteko erlazioak hobetzeko. **Enplegatzaileen erlazioak hobetzeko**. Nafarroa erorbidia, 12 30100 Tolosa. Tel.: 943 65 36 40

**ALDAMA TAPIA S.L.** ARTEKARITZA • GESTORIA • ASEGUROAK Kaleberri, 22-behe • Andoain • Tel.: 943 59 44 76 / 943 30 01 67 / Fax: 943 30 04 17 **otzporatzen ditugu legezkoa** Foruen etorb. 7 • Ibañeta • Tel.: 943 65 03 77 / 943 65 03 77 / Fax: 943 65 52 04 **gestioakomero@il.luzgoitza.es**

**TOLOSAGAJA** Tolosako energia. Zuzen Energia de Tolosa. Tu energia. Arrostegia, 18 • TOLOSA Tel.: 943 67 53 20 • Fax: 943 67 55 11

**FESTAK ONDO PASA!** **TOLARGI** Tolosako energia. Zuzen La luz de Tolosa. Tu luz. Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA Tel.: 943 65 00 16 • Fax: 943 65 00 65 Tel.: matorak: 610 44 00 88 E-posta: [tolargi@tolargi.com](mailto:tolargi@tolargi.com) [www.tolargi.com](http://www.tolargi.com)

**Ezenarro** Zuzen leihotzak gurean Leho isolagarriak • PVC Haustura aluminioko • Egur ardatziztatzen San Franzisko, 26 • behea 20400 TOLOSA • Tel.: 943 11 85 36 Fax: 943 11 85 33

**66** Rokatak, Pintxoak eta Plater Konbinatuak, ugari. — 7etan irekita — **Itzi zoriontsuenak pasa!** M.I. Irusta, 1 • TOLOSA Tel.: 943 67 19 37

**PAULINO SORBARAIN** 1.918tik aurrera • Fundiziorako modelak egurrean, poliestirenoan eta resinan • Dentsitate handiko polietilenoan mekanizatuta • Enbalaketa Donostia Etorb. 6 • TOLOSA Tel.: 943 65 25 58 • Fax: 943 69 73 49 E-maila: [PAULINO\\_SOR@terra.es](mailto:PAULINO_SOR@terra.es)

**LASKORAIN IKASTOLA** Euskaraz bizia Usabal auzoa, 26 • TOLOSA Tel.: 943 69 71 22 [www.laskorainkastola.net](http://www.laskorainkastola.net)



TOLOSA ▶ TXARANGAK

# Zezenen aurrera txarangen atzetik

Elkarteetako txarangek egunero-egunero egiten dute Plaza Zaharretik zezen-plazarainoko bidea



Adin guztietakoek parte hartzen dute xexenatarako kalejiran. J. ASTIBIA



Errozieroak, txantxoak, pailazoak, arranderak... lufi-lalai! J. ASTIBIA



Poca Tripa txaranga gazte-gaztetandik hasi da txiki hau. J. ASTIBIA



Tolosano txaranga Korreo kalean gora, atzo kalejiran. J. ASTIBIA



Arco Iris txaranga lerro zuzenean desfilatatu zuen. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Inongo Inauteriei inbidiarik ez omen dieten hauen beste ezau-garri dira txaranga ere. Egun guztian zehar bazterrek alaitzen aritzen diren elkarte bateko zein besteko txarangek arratsaldero-arratsaldero Plaza Zaharretik zezen-plazarainoko ibilbidea egiten dute txandaka-txandaka, Hamelingo txistulariari xaguak bezala, mozorro taldeak atzetik dituztela, baina baita aurretik ere.

Pintxana, Kabi Alai. Ostegun Gizenean hasita, xexen-festak alaitzen aritzen dira dagokien egunean. Alcoyano, Aiz-Orratz. Ez dute musika bakarra egiten, ordea. Bakoitzak bere elkarte-ko arropa daramalarik, kolorea, umorea hartu eta emateko ere badute, eta gainera saltoka ibiltzeko doinu alai askoak joz, festaren osagai garrantzitsuenetakoak dira.

Sukalde, San Esteban. Zezenataranzko bidean, aiatu, *araurik gabeko* festa hauetako arauetan ezarrita omen dauden bi doinu jotzen dituzte derrigor: *Praxkuarena* eta *Irureta*. Kabilia, Urdiña-txiki. Edonola ere festan murgiltzeko aukera paregabea da, begira egon gabe, espaloitik jaitsi eta jendartean sartzeko. Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris. Alboetara dagoen laguna bizkarretik-edo hartu eta, aurrera eta atzera, dantzan, poteka... *paraba-paraba-parabapa...*

Ero-etxe. Astelenitan ateratzen den txaranga ez zuen hutsik egin atzokoan ere, eta arratsaldeko kalejiran parte hartu zuen honek ere.

**IGARRI**  
AHOLKULARITZA

igarrri@igarrri.com

San Frantzisko kalea, 13 - 2A  
20400 TOLOSA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 65 42 50  
Faxa: 943 65 04 60

Portuetxe ibilbidea 23  
3. solairua 7. atea (CEMEI eraikina)  
20018 DONOSTIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 316 126  
Faxa: 943 316 127

**Sam** Kartazalak  
Poltsak

Usabal auzoa, 126 • 20400 TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 00 • Faxa: 943 67 55 44 • sam@sam-sobres.com

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 ordu lan egiteko. Eskarmentua duena. Deitu 635 745 291.

**Xirimiri** Txokolategia

Gora inauterriak!

Errementuri kalea, 40  
20400 Tolosa

Telef. 943 67 52 23

**Tolosaldea** BUS S.L.

Ondo pasa Inauterriak!

Ibilaldiak • Ezteiak Agurafariak • Ikastetxeak Kirol taldeak

Tel eta faxa: 943 650621 • mug.: 619 723 819 • Donostia EtoB, 9 • TOLOSA

ZERBITZU BULEGOA

**AIXA**

Nominak - Kontabilitateak  
Zergak - Autonomoak

Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 03 03  
Faxa: 943 65 22 22  
mjhuarte@euskalnet.net

**ELA** Ondo pasa Inauterriak!

EUSKAL SINDIKATUA

SEGUROS BILBAO

**Zumardi**  
aholkularitza integrala

San Joan festa zoriontsuak opa dizkizu

Laskurain, 8 beheka • TOLOSA  
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77



AMEZKETAKO TALAIK ▶

NEREA URBIZU

Talaien makil hotsak urrunetik somatzen ziren. Zubillaga auzotik 20 bat talai-dantzari agertu ziren bat-batean, eskusoinu, trikitixa eta panderoa lagun. Abaltzisketarrak bezala, baserri baserri ibili bitartean trikitixa eta panderoa nahiz akordeoiarekin kalejiran joaten ohi dira Amezketako talai-dantzariak.

Aurten ere oso kontent aritu dira dantzan; urrutitik nabaritzen zen hori, erraz entzuten baitziren haien irrintzi, makil hots eta barreak. Igandean ezezik, atzo ere jardun zuten batera eta bestera.

Igandean normalean zortziko taldea ateratzen da dantzatzera, baina aurten bi zortzikoterekin nahikoa ez, eta 20 bat lagun atera ziren. Atzo ere bi taldek jardun zuten, urtero bezala.

Igandean 08:30ak aldera hasi ziren erronda egiten, herri inguruan, bata trikitixa doinuaz eta bestea akordeoiarekin. 10:30ak aldera Zubillaga auzoan elkartu ziren, herriko kale nagusietan denok elkarrekin dantza egiteko.

Atzo, bestalde, baserrietara urrundu ziren bi taldeak eta poltseroak, urtero legez. Eguerdian bazkaldu eta gauean afaria egin zuten herrian eskean lortutako diruarekin. Diru horrekin ere materiala behar bada berritu egiten dute.

# Inoizko parte-hartzaileena izan da aurtengo Talai-dantza

Igandean 20 bat lagunek dantzatu zuten, eta atzo bi talde aritu ziren



Aurten bi mutil berrik dantzatu dute. 20 bat dantzari aritu ziren orotara igandean, poltxeroez gain. N. URBIZU

Neskak ere dantzan

Irati Mujika eta Naiara Beloki akordeoiarekin eta panderoarekin aritu dira aurten, eta Ainhoa Altuna trikitixarekin. Igandeko eguraldi kaskarra jasan behar izan zuten. Atzokoan, aldiz, hobeto ibili ziren, euririk ez baitzuen apenas egin talai-dantzak iraun zuen bitartean. Musikan, beraz, aurtengo kasuan neskak aritu ziren.

Baina ez musika jotzen soilik. Talai-dantzan ere aritu dira aurten hiru neska. Denak ere artzai-gizonaz jantzita, txapela eta guzti. Etorkizuna ziurtatuta dago, hortaz.



Musikariak neskak ziren; gainera, talai-dantzan ere aritu dira neskak aurten. N. URBIZU



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**


19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo

hilberria ▶

**Felisa Otegi Otegi**  
andrea



Eskerrik asko, amona, zure ondoan pasatu ditugun momentu atsegin guztiengatik.

Zure bilobak: Nora, Oihane eta Ibai, Julia, Isabel eta Ana, Uxue eta Haizea, Mireia, eta Intza.

ORDIZIA, 2006ko otsailaren 28a



**ZIRI-ZIRI ▶**  
**JOXEMI SAIZAR**

Erritmoak eta intentsitatea

**B**elaunaldi guztiek bere tokia badute Inauterietan. Urteek eta egoera fisikoak bere mugak ezartzen badituzte ere, bareneko poza islatzeko trebeziak ez du horretaz ulertzen.

Txiki-txikitatik hasten dira batzuk, Dianan amaren barruan edo besoetan saltoka. Urte gutxirekin eskolako konpartsan parte hartzen dute Ostegun Gizenean. Horietako bat Zaldunita bezperan goizean Udaberri dantzari taldekoekin zebilen Altsasuko momotxorroena egiten eta arratsaldean haur danborradan. Hau bukatuta, amak galdetu zion: «Biharko zer nahi duzu jantzi: Spiderman, Garfio kapitaina, mexikarra ala errugbikoa?» A ze aukera! Atzo aisialdi talde batean ikusi nuen (noiz arte ilara luzeko dantza amaiezina?) eta gaur aitaren elkarreko txaranga txapak jotzen aterako da. Barraketan ibiltzeko tarterik ere ez zaio geldituko!

Gazte askok batukada aukeratu dute adierazpide. Zaldunita Bezperan saio bikaina eskaini zuten danborrada ofizialaren ondoren (zergatik Zelata izena?) Zaldunitan berriro arrakasta lortu zuten karroza martxosoena izanez. Atzo beste imitatzaile batzuk ere bazituzten.

Helduagoek mugimendu gutxiago eta azpiegitura gehiago behar izaten dugu: gosaria auzoko okindegian, 2 euro; eskoziar jantzia, 49 euro; artisau erako gaita, 8; tragoetarako potea, 10; bazkaria elkartean, 22 euro; gaueko bokata, 5 euro; *Pela*, *Txaparro* edo *Txopo*-ren *show*-a, horrek ez du preziorik. Eskuekin ezezik, belarriekin eta ipurmasailekin ere jo genituen txaloak.

Zaharrenek ere ez dute hutsik egiten. Urtero bezala, umoreak adinik ez duela erakutsi zuten atzo Txilaba konpartsaok. Gerontologia zentroa itxi bai, baina inauterizaletasuna ezin diete itxi erakundeek. Eskerrak!

**GORA ETA BEHERA ▶**



**Herria, oraindik ere dotore**

Ostegun Gizenerako oihalak, puxikak eta beste hainbat apaingarri zintzilik jarri zituzten tolosarrek beren etxeko balkoi eta leihoetan. Eta oraindik ere halaxe jarraitzen dute etxeko, dotore-dotore, mozorrotuta. Kaleko jaiak dira Inauteriak. Egunero-egunero festarako gogo mantentzen dute tolosarrek, eta giro horri eusten laguntzen dute kolorez betetako eraikinek. J. ASTIBIA

**Jostailuak edo arriskua?**

Inauteriek, berez, ematen dute nahiko aukera ondo pasatzeko. Baina haur batzuk beste dibertimenduak aukeratzten dituzte; besteak beste, petardoak, *bonba fetidoak*... Usainak usain, lehenek zarata desatsegina sortzeaz eta beldurra eragiteaz gain ospitaleko bidea ere ireki dezakete. Benetan hain dibertigarriak dira horrelakoak? I. GARCIA

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Narrea Goñi Garmendia (Alegia).  
Atzo 3 urte gure ebeko erreginak.  
3 mugu potolo asko maite zaitugunon partetik.



**URTE ASKOAN**  
Luar Ugartemendia Goenaga.  
4 urte bete dituen gure ebeko Lucky Luke txikiari, zorionak.  
Ama, aita eta lararen partetik.



**URTE ASKOAN**  
Mateo Zubeldia Suso.  
Gaur 11 urte. Zorionak etxeko guztien partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
agurren tartea